



ZUBIA

Mikel Urdangarin

Norberaren desioak, ametsak eta sentimendu barrukoenak gogorarazten dizkigunean, izendatu ezina izendatzea lortzen duenean, musikak errebelazio baten itxura hartzen du, eta orduan, hunkitu egiten gaitu. Zubia, Mikel Urdangarinen azken lanak, desira, begirada, nostalgia eta hasperenek osatzen duten mundu lanbrotsu hori argiztatu eta ikusgai bihurtzeko dohain berezia du, eta, ispilu baten antzera, norberaren burua erakusten dio entzuleari.

Zubia diskoa, izenburuak berak azaltzen duena da. Zubi bat eraiki du Mikel Urdangarinek eta dei egiten digu bestaldetik. Eskua luzatzen digu, zatoz, zubiaren bestaldean nago, esanaz. Zubiek herrien eta herritarren bizitzak aldatzen dituzte. Zubiek beste aldera pasatzeko gonbita egiten digute, baina ausardia behar da. Mikel Urdangarinen azken lanean inoiz zeharkatu ez diren zubiak edo gehiago zapalduko ez direnak agertzen dira, alde batetik besterako begirada urrunak, elkar bilatu arren, inoiz elkartzen ez diren eskuak, galdutako aukerak, izan zitezkeen munduak eta ez direnak... Galerak sortzen duen mina, ahanzturak eragiten duen ezinegona, desamodioa, erretzen duten zauriak, esanahi handia duten

esan gabeko hitzak, bidean galtzen diren maitasun aitortzenak, beldurrak, isiltasunak eta hutsuneak, gabeziak.

Baina testuetan ezinegona antzeman badaiteke ere, abestiek ez dute kexu kutsurik, ez dira hutsean botatako aieneak. Elkarrekin egindako hasperenak dira, bakarrrik ez gaudela erakusten digutenak. Musika baltsamoa da, ukendu, mina baretzen digu, itxaropenez ziprztintzen gaitu. Bizitzaz betetako taupadak dira notak, baikortasuna kutsatzen duten sastada gozoak. Bai, Mikel Urdangarinen musikak zerura begiratu eta hodei zurien ibilbidea begiratzeko gogoia ematen digu, besoak gorantz luzatu eta, hego-hai-zeak ilea nahasten digun bitartean, abesten hasteko. Zubia diskoan parte hartu duten musikariek lortutako harmoniak, kanta bakoitza belarrira xuxurlatzen digun Mikelen ahotsarekin batera, efektu lurruntu bat sortzen dute, bizitzaren ertzak biguntzen dituen *sfumato* moduko bat, eta giro atmosferiko honek lasaitu egiten gaitu, kontsolatu, sehaskan kulunkatu. Lo dagoenaren gainean botatako izara leuna da Mikel Urdangarinen musika. Amets gozoak opa dizkio, kanpoan hotza eta euria egin arren.

Karmele Jaio (2009ko irailaren 30ean)

Musikariak:

Sahielu Vivo en el acto: bateria
Bingen Mendizabal: zazpi sokako biolina
Rafa Rueda: gitarra elektrikoa, bangooa, gitarra akustikoa (Karoline)
Nika Bitchiasvili: biolina
Koldo Uriarte: pianoa eta teklatuak
Mikel Urdangarin: gitarra eta ahotsak

Hitzak:

Mikel Urdangarin
Unai Iturriaga (Itzi geuntsan)
Karmele Jaio (Infinitua)
Kirmen Uribe & Mikel Urdangarin (Itzartu ez banintz)
Kirmen Uribe (Munduari begiratzeko modu bat)

Marrazkiak:

Mikel Valverde

Haitzetan (Gaztelupeko Hotsak, 1997)
Badira hiru aste (Gaztelupeko Hotsak, 1998)
Espilue (Gaztelupeko Hotsak, 2000)
Bar Puerto (Gaztelupeko Hotsak, 2001)
Bingen Mendizabal
Heldu artean (Gaztelupeko Hotsak, 2002)
Zaharregia, txikiegia again (Gaztelupeko Hotsak, 2003) Kirmen Uribe, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda
Dana (Elkar, 2005)
Anek idatzi dit zutaz (M.U., 2007)
Zubia (Baga-Biga, 2009)



baga-biga musika ideiak
telf. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com